

Eskola eta unibertsitate jarduerari buruzko estatistika

Emitzen analisia

Lanketa:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística (Eustat)

Argitaraldia:

I-2013

Argitalpena:

Eustat

Euskal Estatistika Erakundea

Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: www.eustat.es

© **Euskal AEko Administrazioa**

Administración de la C.A. de Euskadi

Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. IKASTETXEAK	3
3. LANGILEAK	6
4. IKASLEAK	7
Atzerriko ikasleak	12
Ratioak	13
Hizkuntza-eredua	16
Ikasketak aukeratzea	17
Eskola-emitzak	21
5. IRAKASKUNTZAKO GASTUA	22
Irakaskuntza publikoaren gastua eta finantzaketa	23
Irakaskuntza pribatuaren gastua eta finantzaketa	24

SARRERA

Irakaskuntzaren Estatistikaren azterketa honen helburu nagusia da EAEko irakaskuntza arautuaren egungo egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa eskaintzea. Araubide orokorreko irakaskuntzak aztertu dira —unibertsitatekoak eta unibertsitatekoak ez direnak—, bai eta araubide bereziko irakaskuntzak ere, eta sektore publikoa zein sektore pribatua sartu dira azterketan.

Irakaskuntzaren estatistikak ematen duen informazio oinarri garrantzitsuak bi alderdi nagusi ditu: batetik, oso tresna baliagarria da EAEko hezkuntza sistema ezagutzeko, eta, horrenbestez, funtsezko laguntza da hezkuntzaren administrazioak egiten dituen kudeaketarako eta plangintzarako; beste aldetik, gizarteari hezkuntza sisteman erabiltzen diren kopuru nagusiak eskaintzeko behar den estatistika-informazioa ematen du.

IKASTETXEAK

EAEko hezkuntza-sistema arautuak 1.247 ikastetxe zituen 2010/11 ikasturtean. Ikastetxe horietatik 1.188k unibertsitateaz kanpoko hezkuntza eman zuten, eta 59k unibertsitate mailako ikasketak eman zituzten. Aipatuz gain, Araubide Bereziko 134 zentro izan ziren: Hizkuntzak, Arte Plastikoak eta Diseinua, Dantza, Musika eta Kirola.

1. taula. Lurralde historiko bakoitzeko ikastetxe kopurua eta horietan emandako mailak. 2010/11 ikasturtea

	C.A. de Euskadi	Alava	Bizkaia	Gipuzkoa
Araubide orokorreko irakaskuntza	1.247	190	606	451
Irakaskuntza ez-unibertsitarioak	1.188	180	576	432
---Haur Hezkuntza	860	145	410	305
--- Lehen Hezkuntza	536	80	273	183
---Hezkuntza Berezia (Haur eta Lehen Hezkuntza)	46	14	25	7
---Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	335	45	176	114
---Hezkuntza Berezia (DBH)	37	14	16	7
--- Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP)	68	15	31	22
---Batxilergoa	205	26	109	70
--- Erdi mailako Lanbide Heziketa	119	15	63	41
Goi-mailako Lanbide Heziketa	120	15	60	45
---Zereginen Ikasketak	49	11	17	21
---Helduen Hezkuntza	42	3	21	18
Unibertsitate ikasketak	59	10	30	19
---Goi-mailako eskola teknikoak	5	-	2	3
---Fakultateak	28	4	15	9
---Unibertsitate eskolak	23	5	12	6
---Urrutiko unibertsitate-zentroak	3	1	1	1
Araubide Bereziko Irakaskuntza	134	17	57	60
---Arte Plastikoak eta Diseinua	6	1	3	2
---Goi-mailako arte-ikasketak	1	1	-	-
---Dantza	1	1	-	-
---Kirol-ikasketak	4	1	2	1
---Hizkuntzak	14	1	8	5
---Musika	109	13	44	52

Iturria: Eustat

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA


Aurreko ikasturtean baino 23 ikastetxe gehiago izan ziren: 19 gehiago Bizkaian, 5 gehiago Araban eta bat gutxiago Gipuzkoan; aurreko ikasturtearekin alderatuta % 1,7ko gehikuntza eman zen. Gehikuntza horretan eragin zuten ikastetxeak Haur Hezkuntzakoak izan ziren. Gainerako ikastetxeek ez zuten kopuru aldetik aldaketarik izan; aurreko ikasturtean izandako antzeko azpiegitura izan zuten oraingoan ere.

Azterketarekin aurrera egin baino lehen, argitu behar da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza eta araubide bereziko irakaskuntza eman zuen ikastetxe kopurua kalkulatzeko kudeaketako unitateak zenbatu direla; beraz, mailak batean ateratzen den kopurua ez dator guztirakoarekin bat ikastetxe bakoitzean maila ezberdinak eman daitezkeelako aldi berean.

Haur Hezkuntzako ikastetxe kopuruak gora egiten jarraitu du: aurreko ikasturtean baino 32 gehiago izan ziren, eta, orotara, gure hezkuntza sarean maila honetako 860 ikastetxe eskaini ziren. Badira sei urte gehikuntza hau ematen ari dela, Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) sartu delako EAEko hezkuntza-sisteman.

Bestalde, 536 ikastetxek Lehen Hezkuntza eman zuten eta 46 ikastetxetan haur eta lehen mailako Hezkuntza Bereziko unitateak izan ziren, irakaskuntza mota horren zentro espezifiko gisa aritu zirenak.

Bigarren Hezkuntzari dagokionez, 335 ikastetxek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eman zuten, 119k Erdi Mailako Lanbide Heziketa eta 205ek Batxilergoko irakaskuntza. Horiez gain, Bigarren Hezkuntzan Hezkuntza Bereziko unitateak izan zituzten ikastetxe batzuek; bai DBH (37) bai Zereginen ikaskuntza (49) eman zituzten.

1. grafikoa. Ikastetxe kopuruaren bilakaera irakaskuntza mailaren arabera


Iturria: Eustat

Beste alde batetik, EAEn 68 ikastetxek eman zituzten Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP izenekoak).

Horrez gain, Helduentzako Hezkuntzako 42 zentro izan ziren, betiere garapen pertsonal eta profesionalerako ezagupen eta gaitasunak jaso, eguneratu, osatu edo handitzeko aukera eskainiz 18 urtetik gorako guztiei.

Bigarren Hezkuntzaren ondoko irakaskuntzaren barruan 120 ikastetxek eman zuten Goi Mailako Lanbide Heziketa eta 55 ikastetxek unibertsitateko irakaskuntza eskaini zuten; horietako 5 Goi Eskola Teknikoak izan ziren, 28 Fakultateak, 23 Unibertsitate Eskolak, eta, azkenik, 3 urrutiko irakaskuntzako zentroak.

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA


Amaitzeko, araubide bereziko ikastetxeei dagokienez —134 guztira—, gehienek (109) musika irakatsi zuten, musika eskoletatik goi mailako kontserbatorioetara bitarte. Ikasketa berezi hauek ematen zituzten ikastetxeen banaketarekin bukatzeko, 14 hizkuntza-eskola ofizial zeuden, arte plastikoen eta diseinuaren 6 ikastetxe, kirol-irakaskuntzako 3 ikastetxe, dantzako ikastetxe 1 eta goi mailako irakaskuntza artistikoen ikastetxe 1.

Azken bederlatzi ikasturteetan ikastetxe kopuruak izan duen bilakaera aztertzean, oro har, hiru maila nagusietan gehikuntzak eman direla ikusten da: unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan (% 36), araubide bereziko irakaskuntzan (% 19) eta unibertsitateko irakaskuntzan (% 5). Azpimarratzekoa da unibertsitateaz kanpoko ikastetxe kopuruaren gehikuntza: duela bederlatzi urte baino 317 gehiago izan ziren. Grafikoan ikusten den bezala, Haur Hezkuntzako lehen zikloa gure hezkuntza-sisteman sartzea izan da arrazoi nagusia. Bestalde, 2008-2009 ikasturtean HLPPko ikastetxeak egoteak eragina izan zuen unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak izan zuen gehikuntza handian.

Beste mailai dagokienez, araubide bereziko edozein maila ematen duten 19 ikastetxe gehiago izan zen; eta azken urteetan, unibertsitateko 3 ikastetxe gehiago izan zen, nahiz eta bi kasu hauen bilakaera oso lineala izan den.

Titulartasunari begira, % 66 zentro publikoak izan ziren; gainerako % 34 pribatuak. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren barruan, 806 ikastetxe (% 68) publikoak izan ziren eta gainerako 382 (% 32) pribatuak. Ikastetxe publikoen proportzio handiena izan duten mailak hauek dira: HHE (Helduen Hezkuntza), 10etik 8, eta Hezkuntza Berezia eta Haur Hezkuntza, 10etik 7 ikastetxe. Lehen Hezkuntzan publikoak ziren ikastetxe gehienak, baina gero eta gutxiago: 10etik 6. HLPPko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzetan banaketa orekatuagoa izan zen ikastetxe publikoen eta pribatuen artean. Nabarmendu behar da, azkenik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa eman zuten zentro gehienak (% 60 inguru) pribatuak izan zirela.

Unibertsitatearen esparruan, 2010/11 ikasturtean 38 zentro publiko (% 64) eta 21 pribatu (% 36) izan ziren. Hezkuntza berezien kasuan, 69 ikastetxe publiko eta 65 ikastetxe pribatu zeuden.

2. grafikoa. Ikastetxeen irakaskuntza maila eta titulartasuna. 2010/11


Iturria: Eustat

LANGILEAK


EAEko irakaskuntza-zentroen sareak 2010/11 ikasturtean 61.657 langile izan zituen guztira, irakasleak eta bestelakoak barne. Hau da, zerbitzu-sektoreko biztanleria okupatu osoaren % 9,6, 2011n.

Guztira 42.061 irakasle izan ziren (horien % 67 emakumezkoak), hau da % 68; eta irakasleak ez ziren langileak 19.596 izan ziren, gainerako % 32. Lantokiaren titulartasunari begira, irakasleen % 66k ikastetxe publikoetan lan egin zuten, eta % 34k ikastetxe pribatuetan.

Araubide orokorreko irakaskuntzetan 40.837 irakasle izan ziren guztira. Haietarik, 17.752k Haur eta Lehen Hezkuntzak eman zituzten, eta, kasu horretan, gehienak emakumezkoak izan ziren (% 85); 15.475 irakaslek Bigarren Hezkuntza eman zuten (derrigorrezkoa eta bestelakoa), eta, azkenik, 5.744 Unibertsitate Hezkuntzako postuetan izan ziren.

Araubide Bereziko ikastetxeetan 1.224 irakasle aritu ziren, 2010/11 ikasturtean, ikasleak prestatzen. Haietarik % 55 musikan aritu ziren, 674 irakasle guztira. Ondoren Hizkuntzen irakaskuntza dator, 378 irakaslerekin (% 31). Gero Arte Plastikoak eta Diseinua, 86 irakasle; Kiroletakoak 76, eta, azkenik, 10 irakasle Dantzan. Irakaskuntza mota horretan aritu ziren langileen % 54 emakumezkoak izan ziren.

3. grafikoa. Irakasleen bilakaera, mailen arabera




Iturria: Eustat

Zifra hauek duela zortzi urtekoekin alderatuz gero, 2010-2011n irakasleak % 18 gehiago direla ikusten da. Mailaka, unibertsitateaz kanpoko ikasketetan aritu ziren irakasleen portzentajea % 20 hazi zen; unibertsitateko ikasketetan, ordea, gehikuntza txikiagoa izan zen, % 10. Araubide Berezien barruan plantillaren hazkundea % 22 izan zen. Ikastetxe publikoetan irakasle berri gehiago sartu ziren (% 25), pribatuetan baino (% 7).

2010/11 ikasturtean, unibertsitateaz kanpoko ikasketak eman zituzten irakasleen % 42k lizentziatura zuten. % 49 diplomadunak ziren, % 5ek Lanbide Heziketako titulazioa zeukaten, eta % 4k bestelako titulazioren bat zuten. Langile horietako % 30ek 40 urte baino gutxiago zituzten; % 33k 40 eta 49 urte bitarteko adina zuten, eta 50 urte baino gehiagokoak % 34 ziren. % 2ren kasuan ez zen adinik ageri.

Halaber, 27.886 irakaslek (% 79) lanaldi osoan lan egin zuten; % 21ak lanaldi murriztua zuten, alegia, 7.207 irakaslek. Egoera profesionalari begira, 25.096 langile, hau da, % 72 langile finkoak ziren; gainerakoak, 9.997, aldi baterakoak.

4. grafikoa. Irakasleen bilakaera, titulartasunaren arabera


Iturria: Eustat

Unibertsitateko ikasketen irakaskuntzan 5.744 irakasle izan ziren, eta ikasketa maila honetan izan zen emakumeen portzentajea txikiena (% 40). Bestalde, irakasleen % 79 unibertsitate publikoak ziren, eta % 21 unibertsitate pribatuak. Era berean, % 69k lanaldi osoan lan egin zuten, eta lanaldi partziala zutenak, ordea, % 31 ziren. Lan-harreman egonkorra zuten irakasleak 3.166 izan ziren (% 55). Unibertsitatean aritu ziren aldi baterako irakasleak, 2010/11 ikasturtean, 2.578 izan ziren, plantillaren % 45. Kontratu-motari begiratuta, unibertsitate-irakaskuntzako irakasleen artean karrerako funtzionarioa zen era zabalduea, 2.329 irakasle halakoak baitziren, % 41 alegia.

IKASLEAK

2010/11 ikasturtean, EAEko irakaskuntza arautuaren sistema osoan eskolaturik zeuden ikasleak 470.355 ziren, guztira. Horietatik 441.020 Araubide Orokorreko irakaskuntzetan aritu ziren; hots, biztanleria osoaren % 20, eta 25 urteko eta hortik beherakoak % 88. Gainera, 31.233 ikasle Araubide Bereziko irakaskuntzaren batean jardun zuten, batez ere hizkuntzetan (% 86).

Unibertsitateaz kanpoko Araubide Orokorreko irakaskuntzen barruan, 375.413 ikasle zeuden guztira. Haien erdia (187.709) oinarrizko edo derrigorrezko hezkuntzan zegoen, Lehen Hezkuntzan eta DBHn banatuta (117.193 eta 70.516 ikasle, hurrenez hurren). Datuok ikusita, eta biztanleria kontuan izanik, esan dezakegu EAEn derrigorrezko hezkuntzan eskolatzeko tasa erabatekoa izan zela.

Hezkuntza derrigorrezkoa ez denean, bi maila daude, bata nahitaezko adina baino adin txikiagoa, eta bestea adin handiagoetarakoa. Maila txikiago batean edo Haur Hezkuntzan 94.818 ikasle egon ziren, hau da, guztien % 25. Aurreko urtearen aldean % 2,2ko gehikuntza egon zen. Igoera horrek gizarte-eskaria erakusten digu, batez ere 0-2 urte bitarteko haurrentzat, alegia, Haur Hezkuntzako lehen zikloan; izan ere, bigarren zikloan, 3-5 urte bitarte, badira hamasei urte % 100 dagoela eskolatu. Bi urteko haurren eskolatzeko-maila ere % 92raino heldu zen.

Gorengo mailari, hau da, Batxilergoari dagokionez, matrikulatutako 100 ikasletik 8 maila horretan inskribatu ziren ikasturte horretan (28.769 ikasle). Erdi Mailako Lanbide Heziketan 11.468 ikasle, % 3, eta azkenik Goi Mailako Lanbide Heziketan 17.401, % 4,6.

2. taula. Ikasleak, irakaskuntza mailaren arabera

	2010/11	2009/10	Δ Aldeak
Ikasleak, guztira	470.355	458.854	2,5
Araubide orokorreko irakaskuntzak	441.020	431.684	2,2
Unibertsitateaz kanpoko hezkuntza	375.413	367.557	2,1
Haur Hezkuntza	94.818	92.800	2,2
Lehen Hezkuntza	117.193	113.335	3,4
Hezkuntza Berezia	1.050	1.069	-2
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)	70.516	69.464	1,5
Hasierako lanbide-prestakuntzako programak	4.519	4.615	-2
Batxilergoa	28.769	28.973	-1
Erdi-mailako Lanbide Heziketa	11.468	11.068	3,6
Goi-mailako Lanbide Heziketa	17.401	16.579	5,0
Helduen Hezkuntza	29.679	29.654	0,1
Unibertsitateko ikasketak	65.607	64.127	2,3
Ziklo luzeak	21.837	29.280	-25
Bigarren zikloak	2.880	3.005	-4
Ziklo laburrekoak	15.618	22.803	-32
Gradukoak	18.797	4.646	304,6
Hirugarren zikloak	-	1.407	-
Master ofizialak	3.344	2.584	29,4
Doktoregoa	3.131	402	678,9
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	29.335	27.170	8,0
Arte Plastikoak eta Diseinua	414	476	-13
Goi-mailako arte-ikasketak	213	182	17,0
Hizkuntzak	25.211	23.158	8,9
Musika	2.928	2.946	-1
Dantza	101	92	9,8
Kirola	468	316	48,1


Iturria: Eustat

Unibertsitateko ikasketetan, eta 12 urtez behera egiten egon ostean (aurreko hamarkadan baino % 32 gutxiago), aurreko ikasturtean eta ikasturte honetan zehar ikasle kopurua gehitu egin zen: 2010-2011 ikasturtean 65.607 ikasle izan ziren, aurrekoan baino % 2,3 gehiago. Matrikulatutako ikasleak honela banatu ziren: % 38 lizentziaturetan, ingeniarietan edo arkitekturetan matrikulatu ziren; % 29 Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparru (GHEE) berriak egituratutako graduko programetan; % 24 diplomaturetan eta ingeniari eta arkitektura teknikoetan, eta, azkenik, % 5 master ofizialetan eta doktoregoko programetan.

Araubide bereziko irakaskuntzek, 2010/11 ikasturtean, 29.335 ikasleko matrikula ofiziala izan zuten, gehienak hizkuntzen (25.211) eta musikaren (2.928) artean banatuak.

Oro har, hau da matrikulazioak hazi ziren hirugarren urtea EAeko ikastetxeetan. 2010/11 ikasturtean 11.501 ikasle gehiago izan ziren, hau da, aurreko ikasturtearen aldean % 2,5eko gehikuntza egon zen.

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzen barruan, azken zortzi urteetan, ikasturte guztietan gehitu zen ikasle kopurua. Izan ere, ikasturte horretan 7.856 ikasle gehiago (% 2) izan ziren, baina hazkunde hau ez da mailen adierazgarri. Honako mailetan eman zen aurreko ikasturtean baino matrikula gehiago: Lanbide Heziketan, % 5 goi mailakoan eta % 3,6 erdiko mailakoan; Lehen Hezkuntzan, 3.858 ikasle gehiago, % 3,4ko hazkunde beraz; eta, azkenik, Haur Hezkuntza eta DBH, % 2,2 eta % 1,5, hurrenez hurren. Alabaina, Hezkuntza Bereziko (-% 2), HLPPko (-% 2) eta Batxilergoko (-% 1) matrikula kopuruek behera egin zuten.

5. grafikoa. Ikasle-kopuruaren bilakaera, irakaskuntza mailaren arabera


Iturria: Eustat


Araubide Bereziko irakaskuntzei dagokienez, aurreko ikasturtearen aldean % 8ko hazkundera izan zela azpimarratu behar da, 2.165 ikasle gehiago egon baitzen.

Azken 12 urteetan, unibertsitateaz kanpoko mailetan joera oso ezberdinak eman dira, 6. grafikoa ikusten den bezala. Oinarrizko urtearekin alderatuta hazkunde positiboa izan dute Haur Hezkuntzak, Lehen Hezkuntzak eta Goi Mailako LHK, % 67ko, % 17ko eta % 14ko hazkunderekin, hurrenez hurren. Haur Hezkuntzan bakarrik izan zen jarraitua hazkunde hori; beste bi mailek ikasturte batzuetan matrikula kopuru txikiagoa izan zuten, ikasle gutxiago izan zuten.

Beste maila horietan % 18 eta % 28 artean egin zuen behera ikasle kopuruak 1999-2000 ikasturtearekin alderatuta. Nabarmentzekoa da, gainera, DBHn, Erdi Mailako LHn eta unibertsitateetan duela hamabi urte baino matrikula gutxiago egin zirela, baina 2010-2011 ikasturte honetan matrikulazio kopuruak pixka bat gora egin zuen, aurreko ikasturtearen aldean. Eta beste aldean Batxilergoa zegoen, pixkanaka behera egiten joan zelako.

Bestalde, titulartasuna kontuan izanik, 2010/11 ikasturtean ikastetxe publiko eta pribatuetan kontabilizatutako matrikulen ehunekoak joera ezberdina izan zuten, aztertutako irakaskuntza mota aintzat hartu zelako.


Horrela, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan orekatuta zeuden erakunde publiko eta pribatuen ehunekoak, HHE, Erdi Mailako LH eta DBH mailetan izan ezik. Lehenengo maila bietan ikastetxe publikoetako ehunekoak izan ziren nagusi: % 98 eta % 61, hurrenez hurren. Eta DBHn ikastetxe pribatuetan egon zen ehunekorik handiena, % 55.

**6. grafikoa. Ikasleen bilakaera, irakaskuntza mailaren arabera
 Indize zenbakia, 2000 oinarritzat hartuta**


Iturria: Eustat

Unibertsitateko irakaskuntzen barruan, hamar gaztetik zortzik erabaki zuten ikasketak unibertsitate publikoetan egitea.

Azkenik, araubide bereziko irakaskuntzetan, musikan izan ezik (zentro publikoetan % 62ko matrikula portzentajea izan zuen), eta Arte Plastikoak eta Diseinua izan ezik (publikoan % 43ko portzentajea izan zuen), gainerako ikasketetan ia % 100ek zentro publikoetan egin zituzten ikasketak.

7. grafikoa. Araubide orokorreko ikasleen bilakaera, ikastetxearen titulartasuna kontuan hartuta


Iturria: Eustat

Publiko eta pribatuaren arteko egoera nahiko orekatua da, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzek duten itunagatik batez ere; baina hori gorabehera, hamar urte horietan zehar ikastetxe publikoen ehunekoak hiru


ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

puntu egin zituen gora (2001-2002 ikasturteko datuekin alderatuta). Ikastetxe publikoek ikasleen % 58 izan zuten, 7. grafikoan ikusten den bezala. Hamar urte horietako batezbestekoa % 57 izan zen, eta ikastetxe pribatuetako batezbestekoa % 43.

2010/11 eta 1996/97 ikasturteetako ikasleen banaketak alderatu dira, adinaren arabera, 8. grafikoan. Gainera, aldi bi horietako biztanleen datuak ere ematen dira adinaren arabera banatuta. Hamabost urte horietan izandako ikasle galera (139.053 ikasle gutxiago) biztanleriaren jaitzierari egotzi behar zaio. 2010eko biztanleria erakusten duen lerroa, heziketa derrigorrezkoa den adinetan, eskolatutako ikasleenarekin gainjartzen da; orduan, matrikuletan murrizketa badago ere, 6-15 urte bitarteko ikasle guzti-guztiak eskola-prestakuntza jasotzen zutela esan daiteke. Era berean, orain hamabost urte jazo zenez, 3 eta 5 urte arteko umeak guztiz eskolatuta zeuden, nahiz eta hezkuntza ez zen derrigorrezkoa.

Bestalde, eskolatzeko goiztiarragoa ikusten da; gehiago dira 0-3 urte bitarteko ikasleak, Haur hezkuntzako lehen ziklokoak. Bi arrazoi hauek eman daitezke: jaiotza-tasak gora egin zuen eta maila horiek sortu ziren EAEko hezkuntza sisteman; ondorioz, eskaria gehitu zen. Orain hamabost urteko datuekin alderatuz gero adin horretakoak ia eskolatu gabe zeudela ikusten da; 0-1 urte bitartean biztanleriaren % 1,5 ziren; 2 urtetan, 10etik 4 eskolatu ziren. Gaur egun adin horietakoaren eskolatzeko-tasak nabarmen hazi dira: % 20, % 43 eta % 92.

Alderdi positibo bat da 16 eta 27 urte arteko adinetako ikasle gehiago izan zela, orain dela hamabost urte baino, batez ere 17 eta 21 urte artean. 8 puntuko alde positiboa zegoen. Neurri txikiagoan bada ere, 20, 18 eta 22 urteko tasek ere egin zuten gora; lehenengo adin horretan alde portzentuala 7koa izan zen eta beste bi adinetan 6koa.

**8. grafikoa. Araubide orokorreko irakaskuntzetako ikasleak, adinaren arabera
1996/97 - 2010/11 ikasturteen alderaketa**


Iturria: Eustat

2009/10 ikasturtean, EAEko unibertsitate guztiak kontuan izanik, guztira 10.348 ikaslek lortu zuten lizentziatura, ingeniari edo arkitekto titulua, diplomatura edo ingeniari tekniko titulua; haietarik 6.115 emakumezkoak ziren. Hona hemen gainditu kopuru handienak izan zituzten karrerak: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (748), Enpresa-zientziak (682), Haur Hezkuntzako Irakasle-ikasketak (593), Lehen Hezkuntzako Irakasle-ikasketak (401), Industri Ingeniaritza (399), Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa (388), Erizaintza (380) eta Psikologia (314).

Atzerriko ikasleak

Nabarmentzekoa da EAEko ikastetxeetan gero eta gehiago direla atzerriko jatorria duten ikasleak, immigrazioaren ondorioz. 2010/11 ikasturtean araubide orokorreko irakaskuntzako mailaren batean egon ziren 100 ikasletik 7 atzerritarrak izan ziren (aurreko ikasturtean bezalaxe). Indizerik altuenak honako mailetan eman ziren: HLPPEtan, ehuneko 26 puntuko aldearekin, eta neurri txikiagoan izan bazen ere, araubide berezian, DBHn, Lehen Hezkuntzan eta LHn, % 7,1 eta % 10,4 arteko indizeekin. Batez besteko portzentajearen azpitik izan ziren, alabaina, beste maila hauek: Haur Hezkuntza eta Batxilergoa, % 4,8 eta % 4,5arekin, hurrenez hurren.

Atzerriko ikasle gehienak Amerikatik etorritakoak ziren (% 45); Hego Amerikatik, eta bereziki hurrengo herrialdeetatik: Kolonia (% 10,5), Bolivia (% 8,4), Ekuador (% 7) eta Brasil (% 4,6). Afrikatik etorritakoak ere izan ziren, % 30, batez ere Marokotik (% 15), Aljeria (% 3,8) eta Senegal (% 2,5) etorritakoak. Ondoren, Europako kontinentekoak izan ziren atzerritar gehienak (% 17), eta batez ere Errumaniatik (% 8,7) eta Portugaldik (% 2,6) etorritakoak. Azkenik, Asiako herritartasuna zuten ikasleak % 8 izan ziren, gehienak Txina eta Pakistangoak, % 3 bakoitza.

Portzentajea gainerako autonomia-erkidegoetakoarekin alderatuz gero, ikus daiteke ikasturte honetan EAE, % 7arekin, tasarik baxuenak zituzten sei erkidegoen artean egon zela: Ceuta (% 3,3), Extremadura (% 3,4), Galizia (% 3,6), Asturias (% 5,2) eta Andaluzia (% 5,6).

3. taula. Ikasle atzeritarrak, mailaren eta autonomia-erkidegoaren arabera (%). 2010/11

	Guztira	Haur Hezkuntza	L. Hezkuntza	Hezkuntza Berezia	DBH	Batxilergoa	LH	Gizarte Garantiako programak
ESTATUA	9,6	7,1	10,4	11,8	12,3	6,5	7,8	20,5
Andaluzia	5,6	4,2	6,1	6,3	7,2	4,2	3,9	6,8
Aragoi	12,4	10,9	14,7	13,7	13,2	5,6	8,8	33,3
Asturiasko Printzerria	5,2	2,4	5,7	6,6	7,7	3,0	3,9	23,0
Balear Uharteak	15,6	11,9	15,7	16,8	19,5	10,6	18,1	27,4
Kanariak	8,2	4,6	7,9	7,0	11,3	8,3	7,2	14,1
Kantabria	7,1	3,5	7,2	7,4	10,2	5,2	8,1	22,1
Gaztela eta Leon	7,8	6,2	9,0	8,3	9,0	3,6	5,3	23,2
Gaztela-Mantxa	9,2	7,1	10,8	11,0	11,0	5,0	5,7	14,7
Katalunia	13,5	9,9	13,8	18,9	18,1	9,9	12,2	32,9
Valentziako Erkidegoa	11,2	7,1	11,8	10,7	15,6	9,1	9,1	20,2
Extremadura	3,4	3,0	4,1	3,6	3,7	1,7	1,5	4,6
Galizia	3,6	1,7	4,4	5,0	5,0	2,2	2,9	7,3
Madrilgo Erkidegoa	13,4	10,1	14,5	15,3	17,1	9,5	11,4	33,9
Murtziako Eskualdea	12,0	8,8	13,4	11,4	14,8	7,5	8,7	18,9
Nafarroako Foru Erkidegoa	10,3	6,1	12,2	16,0	13,1	4,9	7,0	24,1
Euskal Autonomia Erkidegoa (*)	6,9	4,8	7,1	10,4	8,4	4,5	7,1	33,4
Errioxa	16,5	15,3	18,0	25,6	18,9	6,7	10,2	38,0
Ceuta	3,3	2,7	2,9	0,0	2,3	2,7	5,9	13,5
Melilla	7,7	8,8	9,1	11,4	7,7	3,4	3,2	5,7

Iturria: Eustat (*)

Iturria: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa (2010/11)

Estatuko batezbestekotik gora izan ziren, alabaina, honako autonomia-erkidego hauek: Errioxa (% 16,5), Balearrak (% 15,6), Katalunia (% 13,5), Madril (% 13,4), Aragoi (% 12,4), Murtzia (% 12), Valentziako Erkidegoa (% 11,2) eta Nafarroa (% 10,3).

Ratioak


EAEko **eskolatze-tasa** % 20,3 izan zen 2010/11 ikasturtean, 1997/98 ikasturtekoa baino zertxobait txikiagoa, ordukoa % 21,1 izan baitzen.

Adin taldeen arabera, ikus dezakegu urte hauetan eskolatze-tasak igo egin zirela, batez ere Haur Hezkuntzako lehenbiziko zikloan. 0 eta 1 urte arteko adinetako igoera itzela nabarmendu behar dugu: orain hamalau urte zegoena baino 22 eta 16 aldiz handiagoa izan zen. % 19,6 eta % 43,1eko tasak izan ziren, hurrenez hurren. 2 urteko eskolatzeak bide beretik jo zuten, baina leunago, eskolatutako ume kopurua bikoiztuz (% 91,6).

Jakina, 6 eta 15 urte bitarteko eskolatze tasak % 100ekoak izan ziren adin horietako umeak eskolatzea nahitaetzkoa delako. 3 eta 5 urte artean ez da derrigorrezkoa eskolatuta egotea, baina adin-talde horretako tasak ia % 100ekoak izan ziren aztertutako bi ikasturte horietan.

Lehenengo paragrafoan azaldu da ume txikienen artean eskolatze-tasak gora egin zuela, baina duela 14 urteko datuekin alderatuta 16 urtetik gorako adin-talde guztietan izan ziren saldo positiboak, nahiz eta 0, 1 eta 2 urteko adin-taldean baino neurri txikiagokoak izan. Adin-talde horien artean 17 urtekoa nabarmendu behar da, adin honetan ehuneko 10 puntuko aldea izan zelako 1997/98 ikasturtearekin konparatuz gero; ia 8 puntuko aldea izan zen 16 urteko taldean eta ehuneko 6 puntukoa 20 eta 21 urteko adinetan. Azkenik, 18, 22, 25 eta 26 urteko adinetan 5 puntuko aldea izan zen hasierako ikasturtearekin alderatuta.

9. grafikoa. Eskolatze tasak, adinaren arabera. 1997/98 - 2010/11 ikasturteen alderaketa



Iturria: Eustat

Ondoren adin-talde jakin batzuetan eman ziren tasak ELGAko herrialdeetakoekin konparatuko ditugu, EAE zein egoeratan dagoen jakiteko. Hona hemen aztertutako adin-taldeak: 3 - 4 urte, 5 - 14 urte, 15 - 19 urte eta, azkenik, 20 - 29 urte.

5 eta 14 urte arteko adin-taldean umeak derrigor eskolatuta egon behar dira; horrenbestez, talde honetako eskolatze tasak % 95 eta % 100 artekoak izan ziren, hau da, askotan ume denak egon ziren eskolatuta, EAEn gertatu zen bezala. % 100eko tasa edo hortik gorakoa izan zuten 9 herrialdek, horietako gehienetan

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

nahitaez eskolatzeko adina bost edo lau urtekoa delako (Mexiko, Erresuma Batua, Zeelanda Berria, Grezia eta Suitza). Beste lau herrialdeetan sei urterekin hasten da derrigor eskolatuta egoteko adina, baina urte horrekin ume guztiak zeuden eskolatuta (Portugal, Irlanda, Japonia eta EAE). Gainerako herrialdeek ez zuten tasa osoa lortu umeak 6-7 urterekin eskolatzeko zirelako. Azpimarratzekoak dira, bestalde, Hungaria (% 98,5), Luxemburg (% 95,8) eta Poloniako (% 94,9) datuak, umeak 5 urterekin eskolatu behar diren arren % 100etik beherako tasak dituztelako.

Beste alde batetik, nabarmendu behar da EAEn 3-4 urteko adin-taldea bigarren postuan zegoela, % 99,5 tasarekin, Frantziaren atzetik (% 100,9); eta hirugarren postuan Espainia zegoen % 99arekin. Gure autonomia-erkidegoaren eta EB-21 nahiz ELGAko batezbestekoekin zegoen aldea positiboa zen, ehuneko 21,4 eta 27,6 puntukoa, alegia.

**4. taula. Eskolatzeko-tasak, adin-taldeen arabera.
ELGAko herrialdeekin alderatuta. 2010**

	3 eta 4 urte bitartekoak	5 eta 14 urte bitartekoak	15 eta 19 urte bitartekoak	20 eta 29 urte bitartekoak
EAE 2011	99,5	100,0	88,9	24,8
ELGAko herrialdeak				
Alemania	92,4	99,4	89,5	30,8
Australia	30,9	99,2	81,4	31,9
Austria	75,1	98,4	78,4	25,2
Belgika	98,9	98,6	93,3	30,3
Kanada (1)	24,1	98,7	80,8	24,9
Txile	56,5	95,1	74,8	25,2
Korea	80,2	99,7	85,9	30,2
Danimarka	92,3	99,1	85,0	38,4
Eslovenia	83,7	97,1	91,8	34,0
Espainia	99,0	99,5	84,3	24,4
Estatu Batuak	59,9	96,8	81,7	25,5
Estonia	89,2	96,4	86,5	27,7
Finlandia	51,7	95,5	86,8	41,7
Frantzia	100,9	99,6	84,2	19,9
Grezia	25,9	100,7	83,4	40,3
Hungaria	82,2	98,5	91,7	25,4
Irlanda	66,9	102,1	95,7	20,9
Islandia	95,8	98,5	87,8	38,2
Israel	82,6	97,8	64,6	22,4
Italia	94,8	99,5	83,3	21,5
Japonia	86,1	101,5	m	m
Luxemburgo	84,5	95,8	76,7	12,8
Mexiko	69,4	106,1	53,8	11,9
Noruega	95,7	99,5	86,3	29,4
Zeelanda Berria	90,5	100,9	79,1	30,1
Herbehereak	50,1	99,5	90,7	30,0
Polonia	52,5	94,9	92,7	29,9
Portugal	79,5	102,4	86,4	23,5
Erresuma Batua	90,0	103,1	77,4	18,2
Txekiar Errepublika	72,5	98,1	90,2	24,0
República Eslovaca	66,5	95,8	85,3	20,6
Suedia	92,0	98,5	86,4	36,5
Suitza	22,4	100,1	85,1	24,1
Urkia	10,3	94,1	56,2	19,6
ELGAren batezbestekoa	71,9	95,9	82,9	27,0
UE-21en batesbestekoa	78,1	98,7	86,7	27,4

Iturria: Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika. ELGA.
(1) 2009. urteko datuak.


ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

15 - 19 urteko adin-taldean EAEk EB-21eko (% 86,7) eta ELGAko (% 82,9) batezbestekoak gainditu zituen; hamargarren postuan izan zen, % 88,9 tasarekin. Zerrendako lehen postuan izan ziren, hain zuzen, Irlanda (% 95,7), Belgika (% 93,3) eta Polonia (% 92,7); baina azaldu beharra dago Belgikan derrigorrezko hezkuntza 18 urterekin amaitzen dela. Espainia hogeita batgarren postuan izan zen, % 84,3 tasarekin. Eta amaitzeko, % 75etik behera izan ziren Mexiko (% 53,8), Turkia (% 56,2) eta Israel (% 64,6).

20 eta 29 urte arteko taldean, bai EAE bai Espainia EB-21aren (% 27,4) eta ELGAren (% 27) batezbestekotik behera izan ziren; EAEk eta Espainiak % 24,8 eta % 24,4 tasak izan zituzten, eta hogeita laugarren eta hogeita bosgarren postuetan izan ziren, hurrenez hurren. Zerrendako lehen postuetan honako herrialdeak izan ziren: Finlandia (% 41,7), Grezia (% 40,3), Danimarka (% 38,4) eta Islandia (% 38,2). Beste muturrean zeuden, alabaina, Mexiko (% 11,9), Luxemburg (% 12,8) eta Erresuma Batua (% 18,2).

Talde bakoitzeko ikasle kopuruaren ratioa eta duela hamar urtekoa oso antzekoak izan ziren, bai Haur eta Lehen Hezkuntzan bai Bigarren Hezkuntzan. Lehenengo mailetakoa aldea 0,6 puntukoa bakarrik izan zen, eta ikastetxe publikoen igoerak eragin zuen; ikastetxe pribatuetan ia berdin jarraitu zuen.


Bigarren Hezkuntzan antzekoa gertatu zen, baina alderantziz. Ehuneko puntu 1eko aldea bakarrik zegoen, baina joera beherakoa izan zen 2001-02 ikasturtearekin alderatuta, ikastetxe pribatuetan talde bakoitzean 2 ikasle gutxiago izan zirelako.

10. grafikoa. Ikasle/talde ratioa, ikastetxearen titulartasunaren arabera. Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak.
2001/02 - 2010/11 ikasturteen alderaketa


Iturria: Eustat

Irakasle bakoitzak izandako ikasle kopuruaren gaineko ratioa aztertutako maila guztietan jaitsi da. Unibertsitate mailan gutxitu da gehien ratio hori, 5 ikasle galdu zirelako; duela hamar urte ia 17 ikasle izan zituen irakasle bakoitzak, eta gaur egun 11,4. Bigarren Hezkuntzako ratio hori ere nabarmendu behar da, neurri txikiagoan izan arren: ia bi ikasle galdu ziren (-1,6), eta orain ratioa 8,3 da. Amaitzeko, Haur eta Lehen Hezkuntzan denboran zehar ez zen aldaketa handirik izan: -0,4 ikasle galdu ziren, eta orduan, ratioa 12,7 eta 11,9 artekoa izan zen.


Ikastetxearen titulartasunari begira, 2010/11 ikasturtean balio txikiagoak lortu ziren ikastetxe publikoetan ikasketen-maila guztietan, unibertsitateetan izan ezik. Haur eta Lehen Hezkuntzan, zentro publikoek 9,6ko ratioa izan zuten, eta zentro pribatuetan 16,1ekoa; Bigarren Hezkuntzan (DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa barne) publikoetan 7ko ratioa izan zen, eta pribatuetan 10ekoa. Azkenik, unibertsitateko ikasketetan ikasle bateko aldea izan zen ikastetxe publikoen eta pribatuen artean; 11,6 eta 10,6 ikasle izan zituen irakasle bakoitzak, hurrenez hurren.

11. grafikoa. Ikasle/irakasle ratioa mailen arabera. Irakaskuntza guztiak.


Iturria: Eustat

Hizkuntza-eredua

Unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan, irakaskuntza-eredu elebidunaren arabera sailkapena honakoa izan zen 2010/11 ikasturtean: ikasleen % 17 A eredu aritu ziren, euskara ikasgai gisa. % 22 B eredu elebiduneari aritu ziren, eta % 60 euskara hutsez D eredu aritu ziren. Baina ikasleen % 1 ezin da ezarritako inongo hizkuntza-eredutan sartu; horiek, Eustatek ateratako datuetan X eredu dira. Ikasle horiek ez dute euskara ikasten, ikasgai bezala ere ez; normalean, beste nazioaren batek arautzen dituen eskola-programak dituzten ikastetxeetako ikasleak izaten dira.

12. grafikoa. Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren eta mailen arabera (%).


Iturria: Eustat

Irakaskuntza mailen arabera, Haur Hezkuntzan izan zen D ereduko ikasle gehien, guztien % 73. B eredu % 23k aukeratu zuten, eta % 4 bakarrik sartu zen A eredu aritu ziren. Derrigorrezko hezkuntzan ere D eredu izan zen gehienek aukeratu zutena: Lehen Hezkuntzan % 64k eta DBHn % 56k aukeratu zuten eredu hori.

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

Gainerako eredueta honako datuak eman ziren: Lehen Hezkuntzan ikasleen % 28k aukeratu zuten B eredia, eta % 7k A eredia; Bigarren Hezkuntzan B eredia aukeratu zuten ikasleen kopurua antzekoa izan zen, baina A eredia aukeratu zutenak halako bi izan ziren (% 15).

Azterketarekin aurrera egin baino lehen esan behar dugu derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko irakaskuntzetan ez dagoela, legez, eredu elebidunik, baina ikasle talde batzuek ikasgai batzuk euskaraz ikasten dituzte. Kategoria hori, A eredu indartua esan ohi zaiona, B eredu elebidunarekin pareka dezakegu. Horrela egin da estatistika-ondorioetarako eta irakaskuntza elebidunaren ereduak ahalik gehiena homogeneizatzeko. Batxilergoan, orain dela 3 ikasturteetik D ereduko ikasleen portzentajeak A eredukoa gainditzen du, baina aldea ez da handia; aztertutako urte honetan aldea ehuneko 10 puntukoa izan zen: % 54 eta % 44 izan ziren kopuruak, hurrenez hurren. Lanbide Heziketan oraindik A eredian matrikulatutako ikasleak izan ziren nagusi (% 74); D eredian matrikulatutakoak % 24 izan ziren.

2001/02 eta 2010/11 ikasturteen artean igaro diren hamar urteetan ikasleek izan duten banaketa konparatu da, hizkuntza-ereduaren eta mailaren arabera, eta ikusi dugu gaztelaniaz ikasten ari ziren ikasleak galdu direla eta ikasgai guztiak euskaraz ematen dituen ereduak ikasleak bereganatu dituela. Gainera, oro har, esan dezakegu A ereduak galdu zuen ikasle kopurua D eredian eman zen gehikuntzaren antzekoa izan zela; batetik bestera igaro ziren ikasleak. B eredia berdin antzean geratu zen, Haur Hezkuntzan izan ezik, azken honetan A (-% 6) eta B (-% 6) ereduak azken urteetan izandako aldea batuz gero D eredian izandako gehikuntza (% 12) atera baitzen. Lanbide Heziketan antzera gertatu zen, baina neurri txikiagoan.

Ondorioz, A ereduko mailetan galdu zen ikasle gehien, garrantziaren arabera: DBH (-% 19), Batxilergoa (-% 14) eta Lehen Hezkuntza (-% 12). Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza orokorretan euskaraz zabaltzen jarraitzen du. Hezkuntzako maila ia guztietan ikasleen % 54 baino gehiago euskaraz ari dira. Salbuespen bakarra Lanbide Heziketa da; horretan, % 24k aukeratu zuen D eredia; halere, azken hamabi urteetan gehitu egin da eredu honetan matrikulatutako ikasleen kopurua.

Ikasketak aukeratzea

2010/11 ikasturtean 40.237 ikaslek jarraitu zuten derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko irakaskuntzan; horien % 71,5 Batxilergoan eta % 28,5 Lanbide Heziketan. Azken hamabi urte hauetan portzentajeak egonkorrak izan badira ere, 1999/2000 ikasturtearen aldean ehuneko 8 puntu igo zen Lanbide Heziketa aukeratu zuen ikasle kopurua. Sexuen arabera, Batxilergoan berdinak izan ziren nesken eta mutilen ehunekoak, baina Lanbide Heziketan % 40 neskak izan ziren. Proporzio bera mantentzen da duela hamar urte.

Derrigorrezko ikasketak bukatzeko adin teorikoa 16 urte dira. Beraz, eskolatzetasak adierazten digu EAEko ikasleen "67k" 2010/11n ikasketekin jarraitu zutela, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan. % 22k DBHn jarraitu zuen, errepikatzen. Oro har, ikasturte honetan % 97 eskolatuta egon ziren.

16-17 urte bitartekoen eskolatzetasak garbiak aztertuz gero, EAEko ikasle horien % 73 derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak egiten ari ziren; % 68 Batxilergoan eta % 5 Lanbide Heziketan. Sexua kontuan hartuta, neska gehiago izan zen: emakumeen % 78 eta mutilen % 68 Bigarren Hezkuntza ikasten ari zen.

Batxilergoan, ikasleen % 52k Zientziak eta Teknologiak aukeratu zituzten, % 44k Humanitateak eta Gizarte-zientziak, eta, azkenik, ikasleen % 3,5ek baino ez zituzten aukeratu Arteak.

Erdi Mailako LHko zikloetan, 2010/11 ikasturtean honako lanbide-esparruetan izan zen ikasle gehien: Osasuna (% 15), Fabrikazio mekanikoa (% 14), Elektrizitatea eta elektronika (% 11), Ibilgailuen garraioa eta Mantentze-lanak (% 9) eta Administrazioa eta Kudeaketa (% 9).


Goi mailako ikasketetan, 2010/11 ikasturtean, askoz gehiagok jo zuten unibertsitateko ikasketak egitera (65.607 ikaslek, % 79) Goi Mailako Lanbide Heziketara baino (17.401 ikaslek, % 21). Azken hamarkadan, alabaina, ehuneko biak oso antzekoak izan dira; unibertsitateko ikasketek puntu 2ko galera baino ez dute

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

izan. Unibertsitatean, kopuruak biribilduz, gizonezkoen eta emakumezkoen antzeko proportzioa eman zen, baina Lanbide Heziketan 10etik 4 izan ziren emakumezkoak, hau da, unibertsitateko proportzioak baino 10 puntu gutxiago izan zituen LHk. Horrela gertatu da duela 17 urte.

18-24 urte bitarteko eskolatze-tasa gordinak aztertuz gero, 1997/98 ikasturteetik aztertutako 2010/11 ikasturtera bitartean goranzko joera dago bai unibertsitateko ikasketetan (% 38tik % 48ra igaro zen) bai goi mailako prestakuntza zikloetan (% 3tik % 13ra igaro zen).

Goi Mailako LHn hona hemen gehien eskatutako familia profesionalak: Administrazioa eta Kudeaketa (% 13); Gizarte, Kultura eta Erkidego Zerbitzuak (% 13), Elektrizitatea eta Elektronika (% 12), Fabrikazio Mekanikoa (% 10), Informatika eta Komunikazioak (% 7) eta Osasuna (% 7).

13. grafikoa. Gehien eskatu ziren unibertsitateko 12 titulazioak, sexuaren arabera. 2010/11


Iturria: Eustat

4/2007 Lege Organikoaren aurrekoak ziren eta unibertsitateko lehen eta bigarren zikloak izenez ezagutzen ziren ikasketa programen arabera, guztira 40.335 matrikulazio izan ziren. Aukeratuena hurrenkeran sailkatu dira: Irakasle-ikasketak (3.839), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (3.513), Industri Ingeniaritza Teknikoa (3.443), Enpresa-zientziak (2.329), Industri Ingeniaritza (2.213), Zuzenbidea (1.680), Psikologia (1.529), Medikuntza (1.282), Arkitektura (1.160), Industri Antolaketako Ingeniaritza (990), Gizarte-hezkuntza (895) eta Arte Ederrak (881). Ikasleen % 60k aukeratu zituzten ziklo hauek.

4/2007 Lege Organikoan sortutako ikasketa-programetan, graduak izenez ezagutzen direnetan, guztira 18.797 ikasle izan ziren. Hona hemen sailkapena: Psikologia (1.517), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (1.264), Lehen Hezkuntza (1.235), Ingeniaritza Mekanikoa (1.059), Zuzenbidea (1.044), Haur Hezkuntza (688), Gizarte-hezkuntza (588), Negozioen Kudeaketa (514), Artearen Historia (482), Ingeniaritza Elektronikoa, Industrial eta Automatikoa (473), Geografia eta Historia (467) eta Erizaintza (385). Ikasleen % 52k aukeratu zituzten ziklo hauek. Ikasturte honetan oraindik ez ziren unibertsitate guztietan ezarri graduoko programa berriak, eta, ondorioz, graduoko matrikulen kopurua unibertsitateko lehen eta bigarren zikloko ikasketen kopurua baino askoz txikiagoa izan zen. Hurrengo ikasturterako ezarrita egongo dira.

Lehen eta bigarren zikloko ikasketa motei dagokienez, ikasle gehienak, 18.346, lizentziaturetan matrikulatu ziren (guztien % 45) eta haren atzetik geratu ziren diplomaturak (9.135 ikasle, % 23), arkitektura eta ingeniaritzak (6.371 ikasle, % 16) eta ikasketa teknikoak (6.483 ikasle, % 16). Emakumeen presentzia nabarmena izan zen lizentziaturetan (% 63) eta diplomaturetan (% 70), eta gizonezkoena, berriz, arkitektura eta ingeniaritzetan (% 66) eta arkitektura eta ingeniaritza teknikoetan (% 74).


Graduetan emakumeek eta gizonek antzeko agerpena izan zuten, % 53 eta % 47 hurrenez hurren.

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

EAEko unibertsitateetako ikasleak gizarte- eta lege-esparruetako eta esparru teknikoko ikasketetan espezializatu ziren, bai graduiko ikasketetan (% 70) baita zikloetan ere (% 80). Matrikulazioen erdia lehenengo ikasketa horietakoa izan zen, % 48 eta % 44, hurrenez hurren, eta bigarrenekoak ziren % 32 eta % 26, hurrenez hurren.

Ikasketa horien ondoren humanitatekoak eta osasun esparrukoak izan ziren nagusi (% 8 eta % 7) lehen eta bigarren zikloko ikasketetan, eta % 14 eta % 13ko portzentajeak izan zituzten graduiko ikasketetan.

Azkenik, hurrengo datua azpimarratu behar da: unibertsitateko ikasle oso gutxi aukeratu dituzte zientzien edo saiakuntza-zientzien esparruko ikasketak (matematika, fisika, kimika...). Ikasleen % 5ek eta % 3k aukeratu zituzten ikasketa horiek lehen eta bigarren zikloko ikasketetan eta graduiko ikasketetan.

14. grafikoa. 18 eta 23 urte arteko biztanleen tasa gordinak, gehien eskatu ziren bigarren zikloko eta graduiko ikasketen arabera. 2010/11 ikasturtea.


Iturria: Eustat

Gehienek hartu zituzten ziklo biko lau karreraren 2008-09 ikasturtera arteko bilakaera (ikasturte horretan eman ziren azken aldiz programa zaharrak bakarrik) aztertu dugu, eta denetan matrikula kopuruak behera egin zuela ikusi dugu: Zuzenbidea (-% 52), Industri Ingeniaritza (-% 33), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (-% 26) eta Psikologia (-% 9). 2009-10 ikasturtetik aurrera agertu ziren lehenengo graduak, eta ikasleek psikologia, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea bezalako ikasketak aukeratzin jarraitu zuten. Ordura arte ez zeuden beste bi karrera agertu ziren: Ingeniaritza Mekanikoa eta Lehen Hezkuntza. Azken gradu bi hauek lehen zikloko ikasketak izan ziren lehenago, eta aukeratuena izan ziren.

Beharpenaren zergatiak bi dira: batetik, biztanleria murriztu egin da titulazio horiek ikasten diren adinean, hau da, 18-23 urte bitartean; zehazki % 32 gazte gutxiago egon zen. Bestetik, bestelako ikasketak aukeratu ziren. Karrera guztietan eta aztertutako hamabi urteetan zehar 18-23 adin-taldeko tasa gordina kalkulatu da, biztanleriaren gora-beherak inolako eraginik izan ez dezaten titulazioen bilakaera kalkulatzeko. Emaidza 14. grafikoa ematen da.

Hamabi urte hauetan gehien eskatu diren karreretan ez da aldaketa handirik izan. Salbuespen bakarra Zuzenbide lizentziatura izan zen, % 3,6tik % 2,4ra jaitsi zen eta. 2009/10 ikasturtetik aurrera bigarren zikloko karrera guztiek egin zuten behera, Unibertsitateko Ikasketen Europako Esparrua (UIEE) sortu eta horren barruan ikasketa berriak eskaini zirelako.

15. grafikoa azken hamabi urteetako lehen zikloko bost karrera aukeratuena bilakaera agertzen da. Aurreko grafikoa bezalaxe, 18-21 urte bitarteko eskolatzeko tasa gordina kalkulatu da.


Lehen zikloko ikasketa horietan, aurreko ikasketetan bezalaxe, aztertzen ari garen ikasturteko (2010/11) ikasle kopuruaren beherakada izan zen, lehen zikloko ikasketa horien ordean pixkanaka graduak ezartzen ari

zirelako, lau urteko iraupenarekin. Horrenbestez, oinarritzko ikasturteak (2001/02) azken aurreko ikasturtera (2009/10) arteko bilakaera aztertuko dugu.

Hala, ikasketa gehienek ikasle gehiago izan zituztela ikusten da: Irakasle-ikasketak (% 7,6), Enpresa-zientziak (% 4,8), Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa (% 3,2), Gizarte-hezkuntza (% 1,7), eta, azkenik, Gizarte-lana (% 0,8). Alabaina, beste alde batetik, lehen zikloko karrera batzuetan ikasle kopuruak bederatzi urte daramatza behera egiten: Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa (-% 0,9) eta Kudeaketa-informatika (-% 0,7).

Ikasketa batzuek tasa altuagoak izan zituzten, duela bederatzi urteko datuekin alderatuta; hauetako gehienetan % 0,5 igo dira tasak gehienez, baina nabarmenena Irakasle-ikasketen karreraren igoera izan zen: ia ehuneko 3 puntukoa.

15. grafikoa. 18 eta 21 urte arteko biztanleen tasa gordinak, gehien eskatu ziren lehen zikloko ikasketen arabera. 2010/11.



Iturria: Eustat

Ikasleak sexuaren arabera banatzean datu azpimarragarri bat agertzen zaigu: azken hamabost urteetan gertatu bezala, 2010/11 ikasturtean unibertsitatean ikasi zuten emakumeak (% 54) gizonak baino (% 46) gehiago izan ziren. Emakumeek gehien hautatu zituzten ikasketak hauek izan ziren: Irakasle-ikasketak, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Enpresa-zientziak, Psikologia, Zuzenbidea, Medikuntza, Industri Ingeniaritza Teknikoa, Lehen Hezkuntzako Gradua eta Erizaintza.

Karrera batzuk emakumeenak izan zirela ere esan dezakegu. Ikasle gehien izan zituzten honako hauek: Zuzendaritzari Laguntzeko Gradua (% 98), Haur Hezkuntzako Gradua (% 89), Erizaintza (% 87), Elikagaien Zientzia eta Teknologia eta Psikopedagogia (% 85 biek) eta Itzulpen gintza eta Interpretaritza, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Gizarte-lana, Pedagogia eta Erizaintza (denek % 84). Baina beste karrera hauetan emakumeen kopurua txikiagoa izan zen (% 9 eta % 13 artekoa): Ingeniaritza Mekanikoa, Itsasontzi Makineria, Ingeniaritza Telematikoa, Teologia, Itsas Ingeniaritza eta Ingeniaritza Elektrikoa. Karrera hauek emakume gutxien dutenetatik gehien dutenetara antolatu dira.

Eskola-emaitzak


2009/10 ikasturtean, Lehen Hezkuntzan, 17.145 ikaslek gainditu zuten azken zikloa; % 96,6k, alegia. Ehuneko hori % 97 izan zen neskatoen artean, eta % 96 mutikoen artean.

Erdi mailako irakaskuntzan 14.138 ikaslek lortu zuten Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua (DBH), hau da, 4. maila gainditu zuten ikasle guztien % 91k. Nesken portzentajea % 92 izan zen eta mutilena % 89. Ikasleen % 78k gainditu zuten Batxilergoa, guztira 11.384 ikaslek; emakumeen % 80k eta gizonen % 75ek. Azkenik, Erdi Mailako Lanbide Heziketan 3.594 ikaslek (% 80) bukatu zuten zikloa (emakumeen % 89 eta gizonen % 74); Goi Mailakoa 6.017 ikaslek bukatu zuten, % 85ek (emakumeen % 88 eta gizonen % 82).

Titulartasunari dagokionez, maila guztietan izan zen gaitortuen kopurua handiagoa ikastetxe pribatuetan publikoetan baino; dena den, aztertutako mailaren arabera bata eta bestearen arteko aldeak handiagoak edo txikiagoak izan ziren.

Adibidez, Lehen Hezkuntzako azken zikloan edo Goi Mailako LHn bien arteko aldea txikia izan zen: ehuneko -1,6 eta -0,2 puntu, hurrenez hurren. Baina gainerakoetan aldeak handiagoak izan ziren; Batxilergoaren azken mailan alde hori 20 punturainokoa izan zen, ikastetxe publikoan ikasleen % 68k gainditu zuelako eta pribatuetan % 88k. Antzekoa gertatu zen DBHko laugarren mailan: maila honetako ikastetxe publikoetan % 88k gainditu zuten, eta ikastetxe pribatuetan % 93k. Ezberdintasuna, Erdi Mailako LHn, murriztu egin zen: sare publikoan % 78k gainditu zuten, eta sare pribatuan % 82k.

16. grafikoa. Ikasketa bakoitzeko azken maila gainditu zutenen ehunekoa, titulartasunaren arabera. 2009/10 ikasturtea



Iturria: Eustat

EAEko ikasleek frogatutako Batxilergoko batez besteko nota 6,8 izan zen. Modalitate guztiak aztertuta, Batxilergoko notarik altuenak ondokoetan eman ziren: Zientziak eta Teknologiak (nota: 7), Humanitateak eta Gizarte-zientziak (nota: 6,5), eta, azkenik, alde oso txikiarekin, Arteak (nota: 6,2).

2011. urteko unibertsitaterako sarbide-proban honako emaitza hauek lortu ziren: guztira 10.164 ikaslek egin zituzten probak, eta haietarik % 55 emakumezkoak izan ziren. Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, Estatu osoan Euskal Herriko Unibertsitateak izan zuen matrikulazio gehien.

Euskal Herriko Unibertsitatean ikasleen % 95,5ek gainditu zuten, emakumeen % 95,6k eta gizonen % 95,3k; horrela, EHUK ehuneko altuena izan zutenen artean seigarrena izan zen eta batezbestekotik ehuneko 3,7

puntu gorago geratu zen. EHUren gainera geratu ziren, hain zuzen ere, hurrengo unibertsitateak: Valentzia (% 98,4), Burgos (% 96,9), Castelloko Jaume I.a (% 96,8), Alicante (% 96,6) eta Las Palmas (% 96,1).

5. taula. Unibertsitaterako sarbide-probak: gaitutuen % handienak izan zituzten 20 unibertsitateak. 2011. urtea

	GUZTIRA (%)	GIZONAK (%)	K (%)
GUZTIRA	91,8	91,9	91,7
Valentzia (Est. General)	98,4	98,6	98,3
Burgos	96,9	97,2	96,7
Jaume I. (Castelló)	96,8	97,7	96,1
Alacant	96,6	97,4	96
Las Palmas	96,1	96,3	95,9
Euskal Autonomia Erkidegoa (1)	95,5	95,3	95,6
Jaen	95,5	96,1	95,1
Valladolid	94,3	95	93,8
Kantabria	94,2	94,1	94,3
Salamanca	94,2	95,5	93,4
Huelva	94,1	94,5	93,8
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	94	94	94
Leon	93,8	93,9	93,7
Elx-eko Miguel Hernández	93,8	93	94,4
Murtzia (2)	93,7	94,2	93,4
La Laguna	93,7	94,9	92,8
Valentziako Politeknikoa	93,3	93,4	93,3
Pablo de Olavide	93,2	94,4	92,4
Cádiz	93,2	93,9	92,6
Extremadura	92,9	93,6	92,3

Iturria: Estatistikako Institutu Nazionala.

(1) Iturria: Eustat

2009/10 ikasturtean 10.498 graduatu izan ziren, horietako 6.249 (% 60) emakumezkoak. UIEE barruko ikasketak berrietan, graduatan, lizentziatutako lehenengo ikasleak izan ziren; 150 tituludun. Gainerakoak (10.348 ikasle) lizentziatura, ingeniari-tza edo arkitektura, diplomatura edo ingeniari-tza teknikoko ikasketetan graduatu ziren. Hona hemen gaitutu kopuru handienak izan zituzten karrerak: Irakasle-ikasketak (1.590), Industri Ingeniari-tza Teknikoa (890), Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (748), Enpresa-zientziak (682), Industri Ingeniari-tza (399), Erizaintza (380), Psikologia (314) eta Industria Antolaketako Ingeniari-tza (309).

Guztira 1.517 ikasle amaitu zituzten 2009/10 ikasturtean master ofizialeko ikasketak, horien % 63 emakumezkoak; hau da, aurreko ikasturtean baino % 79 gehiagok. Doktorego-tesia 362 ikasle amaitu zuten, 176 emakumek, hau da, % 49.

IRAKASKUNTZAKO GASTUA

Ondoren, ikastetxe publiko eta pribatuek 2009. urtean izan zituzten gastuaren eta finantzaketaren azalpena ematen da. Kapitulu desberdinak bereiztuko dira, gai honi helduzan ikuspegi ezberdinak daudelako.

Beraz, irakaskuntza publikoaren gastuari eta finantzaketari lotutako atalean EAEn arlo horrek duen egitura ekonomikoa azaldu nahi dugu, betiere ditugun ikastetxe motak, horien tamaina, ematen dituzten heziketa mailak, lurralde kokapena eta finantza iturriak kontuan izanik. Informazio ekonomiko horri eta ikasle eta unitateei buruzko informazioari esker adierazle batzuk atera daitezke arestian deskribatutako ikastetxe mota horientzat.


Beste alde batetik, irakaskuntza pribatuaren gastuari eta finantzaketari lotutako informazioa emateko helburu nagusia ikastetxe pribatuen jarduera ekonomikoen gaineko xehetasunak izatea da; horretarako, erregistratuta dauden gastuen sailkapen ekonomiko-funtzionala eta gastu horiek jatorriaren arabera izan duten finantzaketa hartuko dira kontuan.

Irakaskuntza publikoaren gastua eta finantzaketa

Ikastetxe publikoek 2009. urtean 1.689 milioi euro erabili zituzten irakaskuntzari lotutako gastuetarako, 2007an baino % 16 gehiago. Guztira 2.040 milioi euroko gastua egin zen, jarduera eta zerbitzu osagarriak eta kapital-gastuak barne hartuta; hots, % 20,7 gehitu zen gastu hori. Gastu hori BPGren % 3,1 izan zen. Ikastetxe publikoek irakaskuntzako gastu osoaren % 64,8 egin zuten, eta gainerakoa ikastetxe pribatuek egin zuten.

Ikastetxe publikoen gastu gehiena (% 90) jarduera arruntetara bideratu zen, eta gainerakoa (% 10) inbertsioetara. Bestalde, gastu arrunteko 1.826 milioi euroen % 92,4 zuzenean irakaskuntzarako izan zen; % 1 jarduera osagarrietarako eta % 6,6 zerbitzu osagarrietarako (jantokia eta eskola-garraioa batez ere). Irakaskuntzaren barruan, kapitulu garrantzitsuena langileen gastuena izan zen: kontzeptu horren % 89 izan ziren.

17. grafikoa. Gastu osoaren bilakaera, hezkuntza mailaren arabera (milioi €-tan)



Iturria: Eustat

Irakaskuntza mota kontuan hartuta, unibertsitate aurreko mailak eman zituzten ikastetxeek gastu osoaren % 75 izan zuten; unibertsitateak % 22koa izan zuen eta araubide bereziko irakaskuntza zentreek % 3koa.

Beste alde batetik, irakaskuntzako gastuen hazkunde-erritmoa handiagoa izan zen ikasleka (% 14,3) eskola-unitateka (% 8,9) baino.

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

Haur Hezkuntzako eskola-unitate bakoitzeko irakaskuntza-gastuak 88.935 euro izan ziren, eta Lehen Hezkuntzan 93.486 euro. Bigarren mailako irakaskuntzan DBHk 154.587 euroko gastua izan zuen, Batxilergoko mailek 198.909 eurokoa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketak 164.086 eta 175.156 eurokoa, hurrenez hurren.

Ikasle bakoitzaren irakaskuntzako gastua 5.674 euro izan zen Haur Hezkuntzan, eta Lehen Hezkuntzan 6.101 euro. Erdi mailako irakaskuntzetan: DBHn 9.946 euro; Batxilergoan 8.258 euro eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketan 12.468 eta 11.981 euro, hurrenez hurren. Araubide bereziko irakaskuntzetan (hizkuntzak, musika, dantza eta arte plastikoak-diseinua) ikasle bakoitzeko gastua 1.647 euro izan zen, eta unibertsitatean 7.492 euro.

6. taula. Aldagai nagusien bilakaeraren laburpena

	1999	2001	2003	2005	2007	2009	Aldakuntza 2009/2007
Gutzizko gastua (milioi €tan)	959	1.178	1.288	1.482	1.686	2.040	20,7
Irakaskuntza-gastua, ikasleko (€)	3.125	3.939	4.207	4.539	5.185	5.927	14,3
Irakaskuntza-gastua, unitateko (€)	63.347	79.617	83.704	88.479	96.933	105.583	8,9

Iturria: Eustat

Ikastetxe publikoen sarrerak, guztira, 2.086 milioi euro izan ziren: sarrera arrunta % 90 eta kapitalaren sarrera % 10. Sarrera arruntaren osagai nagusiak diru-laguntza publikoak izan ziren: guztirakoaren % 92,8. Iturri pribatuak sarrera arruntaren % 5,6 ekarri zuten, batez ere irakaskuntzako kuoten bidez (% 2,7) eta jarduera eta zerbitzu osagarrien bidez (% 2,9).


Irakaskuntza pribatuaren gastua eta finantzaketa

EAEko irakaskuntza pribatuan guztira 448 ikastetxe izan ziren, eta horietan denetara 180.000 ikasle. Bada, ikastetxe pribatu hauek guztira 1.104 milioi euroko gastua egin zuten 2009. urtean, BPGaren % 1,66; beraz, 2007. urtearekin alderatuta, % 19,7 gehitu zen gastu hori. Azken hamabi urteetan batez besteko hazkunde metakorra % 5,4 izan da.

2009ko ekitaldian gastu osoaren % 92,9 arrunta izan zen, eta batez ere langileen gastuetara bideratu zen (% 71,2). 2007. urtearekin alderatuta, gastu arrunta % 16,9 gehitu zen. Inbertsio gastua 77,8 milioi euro izan zen (guztirakoaren % 8,9); bada, gastu horrek % 76ko hazkunde-tasa izan zuen 2007. urtearekin konparatuta. Zerbitzu osagarrien gastuak % 16 gehitu ziren, eta jarduera osagarrienak % 86; hots, 2009an guztirakoaren % 7,6 eta % 2 izan ziren, hurrenez hurren.

Ikastetxe mota aintzat hartuta, unibertsitate aurreko mailetan egin zen gasturik handiena, % 85; goi mailako ikasketetan % 13koa izan zen gastua, eta arteari lotutako irakaskuntzetan % 2koa.

Irakaskuntzako gastu unitarioetan (ikasleka eta taldeka bereizita) ez zen aldaketa handirik izan 2007-2009 aldian. Ikasle bakoitzean egindako gastua % 13,4 gehitu zen, eta unitate bakoitzeko gastua % 12,9. Beste era batera esanda, talde bakoitzeko ikasle kopurua konstantea izan da 2009an.

18. grafikoa. EAeko ikastetxe pribatuen irakaskuntzako gastua, ikasleen arabera (€)


Iturria: Eustat

2009. urtean, eskola-unitate edo talde bakoitzeko irakaskuntzaren kostuak 74.947 eta 89.916 euro izan ziren Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Erdi mailako irakaskuntzaren kostu hauek izan ziren: 105.377 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), 103.297 euro Lanbide Heziketan eta 130.913 euro Batxilergoan. Helduak hezteko unitatearen kostua 54.330 euro izan zen. Ratio txikiak ikastetxe erlijiosoenak izan ziren oraindik.

Ikasle bakoitzaren irakaskuntzako kostuak 4.036 euro izan ziren Haur Hezkuntzan, 4.380 euro Lehen Hezkuntzan, 5.443 euro DBHn, 5.757 euro Batxilergoan eta 6.162 euro Lanbide Heziketan. Unibertsitatean ikasle bakoitzeko gastua 6.442 euro izan zen, eta 1.651 euro irakaskuntza artistikoetan.

7. taula. Aldagai nagusien bilakaera.

	1997	1999	2001	2003	2005	2007	2009	Δ 2009/2007	Δ 2009/1997
Gutzizko gastua (milaka €tan)	559.807	596.793	680.274	736.529	834.401	922.159	1.104.185	19,7	5,4
Irakaskuntza-gastua, ikasleko (€)	2.131	2.492	2.911	3.300	3.727	4.104	4.654	13,4	6,2
Unitateko irakaskuntza-gastua (€)	54.634	59.714	65.635	69.744	74.509	82.563	93.253	12,9	4,2

Iturria: Eustat

EAeko ikastetxe pribatuen sarrera osoa 1.021 milioi euro izan zen; horien % 98 sarrera arruntetan eman ziren eta % 2 kapital sarreretan. Diru-laguntza publikoak izan ziren sarrera-iturri arrunt nagusiak (% 66); eta gero irakaskuntza-kuotak (% 14) eta zerbitzu osagarrienak (% 8,6).

Kuoten bidezko sarrerak honela banatu ziren: irakaskuntza-kuotak % 53,2 izan ziren, garraiokoak % 8,4, jantokikoak % 22 eta jarduera osagarriei lotutako kuotak familien ordainketen % 13,6 izan ziren. Gainerako kuotak bestelako zerbitzuak ordaintzeko izan ziren.

ESKOLA ETA UNIBERTSITATE JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA

EAEko ikastetxe pribatuetan, bestalde, ikasle bakoitzeko batez besteko irakaskuntza-kuotak 709 euro izan ziren; zerbitzu osagarrietarako ordainketak (jantokia eta garraioa, funtsean) 441 euro izan ziren, eta jarduera osagarrietarako 181 euroko ekarpena egin zen ikasle bakoitzeko.

Ikastetxe pribatuek 77,8 milioi euroko inbertsioak egin zituzten. Horietatik 17 milioi euro kapitalari lotutako diru-laguntzen bidez edo kapital-ondasunen salmentatik lortutako sarreraren bidez ordaindu ziren.

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del



www.eustat.es